



Ormaiztegi Udala

DEIALDIA: ORMAIZTEGIKO UDALEKO KULTURA TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA

Hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileak, 2021eko urtarrilaren 25eko bilkuran, honako hau erabaki du:

Hautaketa prozesuan zehar jaso diren eskariak eta erreklamazioak aztertzea

ERABAKIA

LEHENA: Luzia Martin Ruiz andrearen oposaketako bigarren ariketaren emaitza ez aldatzea eta bere horretan uztea.

BIGARRENA: Beñat Martínez Castillo jaunaren oposaketako bigarren ariketaren emaitza ez aldatzea eta bere horretan uztea.

HIRUGARRENA: Eztitxu Etxeberria Barandiaran andrearen oposaketako laugarren ariketaren emaitza ez aldatzea eta bere horretan uztea, IVAPeko Euskalduntze Zerbitzuaren txostena bere eginez.

LAUGARRENA: Nerea Manzisidor Mendizabal eta Iyuya Urrutia Goya andreek, oposaketa gainditu ez arren, lehenengo, bigarren eta hirugarren ariketak gainditu dituztenak ere lan-poltsan sartzeko eskariari ezetza ematea.

Oposaketa fasea gainditu dutenen meritua baloratzea (Lehiaketa fasea) eta izendapena proposatzea

ERABAKIA

LEHENA: Ane Aramburu Amilleta andreak 10,22 puntu aitortzea Lehiaketa fasean, atxikita dagoen taulan zehazten denaren arabera, eta hautaketa prozesu osoan 62,16 puntu aitortzea.

BIGARRENA: Beñat Martínez Castillo jaunari 6,10 puntu aitortzea Lehiaketa fasean, atxikita dagoen taulan zehazten denaren arabera, eta hautaketa prozesu osoan 57,72 puntu aitortzea.

HIRUGARRENA: Alkate jaunari proposatzea Ane Aramburu Amilleta andrea praktiketako funtzionario izendatzea.

Ormaitegin, 2021eko urtarrilaren 27an.

Epaimahaiaren idazkariak,